



# **Euskal Konfederazioaren norabide berrien gogoeta**

**• 2025 •**



## EZTABAIDAREN AURKEZPENA

**Euskal Konfederazioak eztabaida bat abiatzea erabaki du**, azken urteetako bilana egiteko, euskararen egoera aztertzeke, datozen urteetarako bere erronkei buruz hausnartzeko eta bere egituraketa eta ibilmolde erronka berrietara egokitzeke.

Gogoeta horren helburua da **euskararen aldeko dinamikari bultzada berri bat ematea** momentu batean nun bere egoera kritikoa baino gehiago den eta Euskararen Erakunde Publikoa aurrekaririk gabeko krisi batean dagoen.

Eztabaida horrek ekarpen bat ere izan nahi du, Euskal Konfederazioa aktiboki murgildua den **Batera formula berriak duela hilabete batzuk bultzatu zuen Ipar Euskal Herriaren etorkizunari** buruzko gogoeta orokorrako baterako.

Kontuan hartu beharreko azken kontestu elementuak 2026ko martxoko herriko hauteskundeak dira eta Herri Elkargoan batzar berriaren eratzea da. Eztabaida horren bidez eta hortik sortuko diren ekimenen bidez, **Euskal Konfederazioak mezu argi bat helarazi nahi die Ipar Euskal Herriko hautetsi berriei.**

### Eztabaida prozedura eta Ezohiko Biltzar Nagusia

Joan den urtariletik, Euskal Konfederazioak eztabaida horren prestatzeko prozedura bat plantan ezarri du. Lantalde bat osatu da, eztabaidatu beharreko dokumentua prestatzeko, eztabaida metodo bat proposatzeko eta dinamizatzeko. **Eztabaidatua izanen den dokumentua Euskal Konfederazioaren zuzendaritzak baieztatu du.**

Orain, eztabaida bigarren fasera pasako da, abenduaren erdi aldera iraganen den Ezohiko Biltzar Nagusi batekin bukatuko dena, data berantago jakinaraziko da.

**Eztabaida Euskal Konfederazioa osatzen duten egitura guzietan burutzea eskatua da**, bakoitzak ikusten du nola antolatzen duen. Kontuan hartu beharreko elementuak:

- Irailaren 7tik azaroaren 7a arte eztabaida eta emendakinak egiteko tarte da.
- Azaroaren 10etik 28a arte kontuan harturik egin diren ekarpenak lan taldeak behin betiko txostena osatzen du.
- Abenduaren 2an zuzendaritza berezia txostenari azken begirada baten emateko.
- Ez Ohiko Biltzar Nagusiaren aste bat baino lehen txosten definitiboa berriz egitura guzietarat bidalia izanen da.

**Ezohiko Biltzar Nagusia urtarrilaren 24ean larunbat goizez iraganen da, 9:30tan Kanboko Seaskaren egoitzan.** Ezohiko Biltzar Nagusiak hainbat erabaki hartu beharko ditu (biltzar nagusia aitzin erabaki horiek hartzeko behar diren elementu guziak bidaliak izanen dira) :

- Eztabaida gai den txostena.
- Euskal Konfederazioaren zuzendaritza berria.
- Euskal Konfederazioa adostu izan diren norabide orokorrak Ipar Euskal Herrian sozializatzeko plana.
- 2026ko udazkenean manifestaldi / mobilizazioa handi baten printzipioa.

Eztabaida on deneri !

**Euskal Konfederazioa**

# AURKIBIDEA

1. EGOERAREN AZTERKETA.....5 orr.
2. EUSKAL KONFEDERAZIOAREN ERRONKAK..... 15 orr.

# 1.- EGOERAREN AZTERKETA

## 1. EUSKARAREN EGOERA

### 1.1 Euskal Herri mailako datuak eta egoera orokorra

Azken hamarkada luzetan kezka handiz bizi ditu Euskal Herri osoko euskalgintzak normalizazio eta biziberritze prozesuaren kontrara datozen joera soziolinguistiko batzuen agerpen eta indartzea. Hori dela eta, motelaldia, bidegurutzea... are, minbizia, behin baino gehiagotan agertu diren hitzak dira azken urteetako diagnostikoetan. Ildo horretatik, Euskalgintzaren Kontseiluak euskara bere eremu osoan larrialdi linguistikoan dela adierazi zuen iazko azaroaren 9an Bilbon, ELEN Europako Hizkuntz Berdintasunerako Sarearen urteko batzarraren testuinguruan.

Beste asko ere badira kezkarako iturri, baina azken inkesta soziolinguistikoak agerian utzitako datuok azpimarratu zituen Kontseiluak larrialdiaren diagnostikoa modu labur eta argian azaltzeko: Ipar Euskal Herrian hiztun kopuru erlatiboa apalduz doa oraindik; Nafarroan hamar ikasletik seik ez du inolako harremanik euskararekin bere ikasketa prozesu guztian; Euskal Autonomi Erkidegoko gune euskaldunenetan atzera egiten ari da euskararen erabilera -arnasguneen erdalduntze bizkor eta kezagarria horren buru-; Euskal Herri osoko joera da euskaraz erdaretan baino errazago moldatzen diren hiztunak gero eta gutxiago direla. Finean, zifretara etorrita, hiztunen %17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak baino gehiago erabiltzen dutenak.

Hizkuntza baten osasunaren adierazgarri behinena erabilera soziala da, eta hain zuzen ere, euskarak horretan du herren handiena, ahultasun nabariena. Urteetan, hiztunen axolagabekeria eta engaiamendu eskasari egotzi zaio ezintasun hori. Iñaki Lurrebasok demolinguistikaren ikuspegitik landu eta plazaratu duen doktore tesi, berriaz, bestelako errealitate bat ekarri digu: erabilera murriztaren oinarrian egiturazko arazoak daudela, bereziki, euskararen ezagutza sakonarekin eta horretara iristen diren egitura eta baliabideekin loturikoak.

Izan ere, egun Euskal hiztunen %8 baino ez da euskaraz erdaretan baino errazago moldatzen dena. Halaber, euskaldun gehienak gune erdaldunduenetan bizi dira, eta eskas dituzte euskaraz aritzeko aukera errealak. Beraz, egoera honetan %17,5eko erabilerak adierazten du euskaldunek atxikimendu handia diotela euskarari, eta aukera dutenetan eta zailtasunen gainetik erabiltzeko joera. Baina, bestalde, egiturazko neurrien eta euskararen normalizazioan eta biziberritzean sendo eragingo duten politika publikoen gabezia uzten du agerian.

Eta hau guztia gertatzen ari da globalizazio eta merkantilizazio muturrekoek, jendeon mugikortasun eta deserrotzeak, eta bizitzaren digitalizazioak mundu osoko hizkuntza minorizatuei are eta zailtasun gehiago eta handiagoak ezartzen ari zaizkionean. Izan ere, globalizazioaren aldaera honek ezinbesteko ditu uniformizazioa eta homogeneizazioa irauteko. Horrenbestez, euskararen aldeko politika irmoak inoiz baino premiazkoagoak dira.

Errealitateari beha, finean, larrialdi linguistikoan gaudela nabarmena da. Baina ez dadila izan hau etsi-

tzeko eta itxaropena galtzeko. Aitzitik, lurrebasoren tesiak erakutsi duen bezala, hiztunon euskararekiko atxikimendua handia da, eta horrek ekarri gaitu mendeetako zapalkuntza eta ezintasunei aurre eginez honaino. Gainera, euskara komunitatea lantzeko lanabesik zorrotzenetakoa dugu, hots, egungo mundu testuinguru gordinean bizitza bizigarriagoak sortzeko osagaietako bat.

## **1.2 Ipar Euskal Herrian**

### 1.2.1 DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

VII. inkesta soziolinguistikoaren arabera euskaldunen kopurua gero eta apalagoa da Ipar Euskal Herrian. Etxeko transmisioa beheraka doa, euskaraz eroso aritzeko gaitasuna dutenen kopurua ere eta Ipar Euskal Herrira bizitzera etortzen den jende berriaren emendatzea dela eta euskaldunen proportzioa txikitzen ari da. Beraz euskara minorizazio egoera larrian aurkitzen da. Minorizazio egoera hau BAM eta Lapurdi eskualdean nabarmentzen da gehien.

Hala ere indarberritze bat ageri da 16-24 urtekoen artean eta pixka bat apalagoa 25-34 urtekoen artean. Bestalde erabilera maila ere ahula da, familia mistoetan (euskara eta erdara), erdara gailentzen baita gehienetan eta euskaldun kopurua txikituz doan heinean elkartzeko eta euskaraz trukatzeko momentuak gero eta erronka handiagoa bilakatu baitira.

### 1.2.2 LEGE BALIABIDEAK

Hizkuntza gutxitua biziberritzeko helburua duen hizkuntza politika bat hankamotz gelditzen da hizkuntza hori ez bada behar bezala legez babesten. Frantzia mailan «eskualde hizkuntzen» erabilera arautzen duen lege koadroa hutsaren hurrengoa da eta aldeko legeak direlarik ez dira baitezpada aplikatzen. Molac legearen adibidea hor dugu.

Gisa berean, eskualde hizkuntzak frantses Konstituzioan ondare gisara sartu izanak, konkretuki, ez du eraginik. Konstituzio Kontseiluak ebatzi zuen ondare izan arren lege babesik ez baita hiztunentzat. Horrez gain, auzitegiek argudio juridikoetara jotzen dutelarik hizkuntz gutxiagotuen kontra egiteko da, azkenaldian ikusi ahal izan dugun bezala frantses Konstituzioaren 2. artikuluen erabilerarekin.

Hala ere, koadro juridiko egokirik izan ezean ere, euskara gero eta arlo gehiagotan presente da, nahiz eta arlo horietan guzietan presentzia eta erabilera normalizatutik urrun izan.

## **1.3 Arloz arloko argazkia**

### 1.3.1 HAURTZAINZAK

Konkilotx, lehen haurtzaroan ari diren haurtzaindegi eta haurtzain etxeak biltzen dituen elkarte gazteak 2 urte besterik ez ditu. Imersioan ari diren zerbitzuekin egiten du lotura.

Beharra argia da, eskaintza ez da nahikoa eskaerari erantzuteko. Euskarazko haurtzaindegiek %5a eta haurtzain etxeek %18a errepresentatzen dute eta ipar Euskal Herrian zehar eskaintza ez da orekatua. Familia transmisioa behera ari den momentu honetan, lehen haurtzaroa arlo gakoa bilakatu da haurrak

txikitatik euskararen munduan murgiltzeko eta lehen mailako hezkuntzan hasten direlarik hizkuntza-  
ren jabe izan daitezten.

Horretarako, oinarrizko harrera eskaintza euskalduntzea da hurrengo urteetako erronka. Hau lortzeko,  
oinarrizko formakuntza euskaraz eskaini edo haurtzain diren profesionalentzat euskara ikasteko finan-  
tzamenduak proposatzeko bideak garatu behar dira. Belaunaldi berrien beharra ere ezinbestekoa da,  
arloan honetan ari diren profesionalen laurdenak 55 urte baino gehiago baititu. Gaur egun arloa ttikia  
baldin bada ere, garatzeko ahalmen handiak erakusten ditu.

### 1.3.2 IRAKASKUNTZA

Hezkuntza sistemak berebiziko garrantzia du euskararen biziberritze prozesuan. Ipar Euskal Herrian,  
Euskararen Erakunde Publikoaren sorrera mugarri bat izan da euskararen eta euskarazko eskaintza egi-  
turatzerakoan. Horrela, 2004tik hona gero eta gehiago dira euskarazko irakaskuntza (murgiltzea, ele-  
bitasuna edo hautazko gai gisa) proposatzen duten ikastetxeak, nahiz eta azken urteetan garapena  
moteldu den. Gaur egun Ipar Euskal Herriko eskolen %60k eskaintzen du irakaskuntza elebidunerako  
aukera, frantses elebakarraren alboan. Funtsezkoa da eskaintza orokortzea.

Horrez gain, 2008tik aitzina, «euskarazko gelak» garatu dituzte hainbat eskoletako sail elebidunetan,  
ikasgelan osoki euskaraz aritzeko aukera emanez —ez diogu “murgiltze” deituko, ikasgelatik kanpora  
ez duelako euskarekin harremanik bermatzen—. Hala ere haur hezkuntzara mugatzen dira; Lehen Mai-  
letan esperientzia gutxi batzuk besterik ez dira, eta Bigarren Mailan ez dago euskarazko gelarik kolegio  
eta lizeoetan. Euskaldun kopurua indartu nahi badugu, ezinbestekoa da sare publiko eta pribatuan  
eredu hauek garatzea.

Hizkuntza politika publikoak euskarazko irakaskuntzaren bilakaera bultzatu badu ere, ama eskolatik  
lizeorako ikuspegi orokorra hartuta, datuak ez dira satisfagarriak. Izan ere, gehiengo handi bat frantses  
elebakarrean ari da oraindik. Gaur egun Ipar Euskal Herriko ikasleen %67k ez dute harremanik euska-  
rarekin. Unescoren arabera, hizkuntza bat «arriskuan» edo «potentzialki arriskuan» dela kontsidera  
daiteke, haren lurraldeko gazteen %30ek bederen tokiko hizkuntza ikasteari uzten diotelarik.

Murgiltzea da haur eta nerabeen euskalduntzea berma dezakeen irakaskuntza eredu bakarra. Ooren  
buru, ikastolek baizik ez dute eskaintzen haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, kolegioan eta lizeo oro-  
kor teknologiko eta lanbide heziketan.

### 1.3.3 AISIALDIAK

Haurren artean erabilera bultzatzeko gakoa da aisialdi arloa. Arloa luzaz Uda Leku elkarteak bakarrik  
jorraturik, 2006an EEPren sortzearekin, hizkuntzaren erabilera sustatzeko politikak bidean ezartzen dira  
eta aisietan euskarazko eskaintza egituratzen da.

Gaur egun, Uda Leku euskara hutsezko eskaintza egiten duen aktore bakarra da Ipar Euskal Herrian,  
eta, bestalde, herri batzuek eta Euskal Elkargoak elebidun eskaintza batzuk garatu dituzte. Baina arloa  
mugatua da gaur egun, alde batetik aisien arloa definitzen duen lege koadrorik ez baita, eta bestetik  
herriek ez baitute euskarazko aisialdirik eskaintzeko obligaziorik, nahiz eta beren konpetentzia izan.

Ikastoletan eta eskola elebidunetan diren haur kopurua kontutan harturik, aisian eskaintzen den leku kopurua guztiz disproportzionatua da eta ez dio beharrari erantzuten. Azkenik, euskarazko aisialdi eskaintzaren inguruko sentsibilizazio eskasa nabaria da. Komunikazio kanpaina publiko baten beharra ezinbestekoa da.

#### 1.3.4 HELDUEN EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE ARLOA

Gaur egun Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze (HEA) arloaren finantzamendu koadroa ez da adostua. Euskaltegiek jasotzen duten funtzionamendurako dirulaguntza ez da arautua eta ikasleentzat euskara ikasteko bekak bakanak dira. Finantzamendu koadro ezak arloaren garapena mugatzen du. 1995-2025era bitartean Helduen Euskalduntze eta Alfabetatze (HEA) arloan matrikulazioa bikoiztu dela erran dezakegu. 1995ean 916 ikasle ziren AEKn eta 2025eko ikasturtean 1900 ikasle inguru izanen direla estimatzen da. Duela 30 urte gau eskoletan kurtsoak eta ikastaldiak eskaintzen ziren euskara ikasteko eta gaur egun eskaintza zabalagoa da.

Gau eskola eta ikastaldiek formula erakargarriena izaten segitzen dute (1300 ikasle gaur egun), baina formula berri eta eraginkorrak ere eskaintzen dira 6 hilabeteko ikastaro trinkoak eta lan denboran euskara ikasteko formakuntza profesionalak bezala.

Luzaz HEAri bere garrantzia eman ez bazaio ere, gaur egun argi gelditu da euskararen geroa ez dela haurren euskalduntzearekin bakarrik segurtatzen ahalko eta helduak euskalduntzea ere lehentasun bat dela.

#### 1.3.5 HEDABIDEAK

Euskarazko hedabideen bidez aktualitatea segitzen duten herritarren proportzioa txikia da, baita euskaldunen artean ere. Euskal Irratiak sareko irratiek, eskualdeen arabera, entzute maila gora dute, baina frantsesezko hedabideen nagusitasuna argia da.

Bi Komunikabide mota dira, euskara kontuan hartzen dutenak. Lehenik eta behin, Euskal Hedabideak elkartean biltzen diren euskarazko hedabideak (Euskal Irratiak, Herria, Kanaldude, IEHko Hitza, Kazeta). Elkartea sektorea defendatu indartzeko sortu zen, baita ere irakurle, ikusle zein entzule berriak lortzeko estrategia bateratuak definitzeko. Multzo horretan EITB sartzen da ere, 2010az geroztik, EITB Ipar Euskal Herrian hedatua da, EEPrekin partaidetzan, instituzioen babesarekin.

Bestalde, euskarari leku handiago edo txikiagoa ematen dioten hedabideak ditugu, hedabide elebidunak. Kategoria honetan sartzen dira bi komunikabide publikoak, gaur egun Ici Pays Basque irratiarentzat (13 orduko antena astean euskara, ekoizpenaren % 18) eta France 3 Euskal Herri Pays Basque telebistarentzat izendatuak (10 ordu pasatxo urtean euskaraz).

Beste elementu bat kontuan hartzekoa da, denboraldi honetan informazioa kontsumitzeko moduak bilakaera handia izan duela, bereziki herritar gazteen artean. Sare sozial nagusien bilakaera eta nagusitasuna nabaria da. Alta, kontsumo ohitura berrietan presente egotea ezinbestekoa izango da, hedabidearen oinarritzko funtzioak alde batera utzi gabe, kalitatezko eta gertuko edukiekin ikus-entzule gazteengana hurbiltzeko xedearekin.



## **1.4 Erabilera**

### 1.4.1 PRESENTZIA ADMINISTRAZIOETAN

Erakunde publikoetan (administrazioetan, zerbitzu publikoetan..) euskararen erabilera arautzen duen legerik ez bada ere (betebeharrak finkatzeko), erran daiteke euskararen presentzia nabarmen areagotu dela azken 30 urteetan -herri mailan bereziki (hizkuntza pasaia, agenteen formakuntza, erabilera komunikazioan...)- nahiz eta Ipar Euskal Herriko instituzio desberdinetan euskararen normalizazio osotik urrun izan. Jende baliabideen aldetik, horietan euskara garatzeko ardura duen euskara teknikariaren figura arruntago bilakatu dela erran dezakegu.

### 1.4.2 PRESENTZIA EREMU SOZIO-EKONOMIKOAN

Gaur egun, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan euskarak toki murrizta du eremu sozio-ekonomikoan. Gutti landua izan den gaia da. Alta, langileei euskaraz lan egiteko aukera eta bezeroei euskaraz kontsumitzeko eskubidea aitortzea sortuko luke besteak beste. Bi eragile nagusi ari dira horretan lanean: Bai euskarari, izen bereko ziurtagiria banatuz eta Euskal moneta, euskara desafioarekin. Biek aholkularitza eta laguntza ere eskaintzen dute, baina baliabide eskasaz eragina mugatua da. Plan oso baten beharra bada, eragile ekonomikoek euskara molde orekatu, koherente eta etikoan txerta dezaten enpresa sortzetik hasiz eta garapena arte.

### 1.4.3 PRESENTZIA KULTURAN

Euskarazko kultur eskaintza guttiengoan eta guttitua da. Frantsesezko eta inglesezko eskaintzak hegemonikoak dira eta uniformizazio kulturarat eramaiten gaituzte. Hala ere, euskarazko euskal kultur mugimendua bizia eta antolatua da. Azken urteotan, kantua, bere forma guzietan, zinema, antzerki herrikoa, dantza, kabalkadak edo libertamenduen bidez bere eskaintza berritzen eta garatzen jakin du.

### 1.4.4 PRESENTZIA BIZI SOZIALEAN

Gaur egun, euskararen erabilera ahula da eta gainera apaltzeko joera du. Hizkuntzen biziberritze prozesuetan hizkuntzen erabilera sozialak berebiziko garrantzia du. Ezagutza eta erabilera elkar eragitan dira. Soziolinguistika guztiek nabarmendu duten bezala (Fishman, Txepetx...) erabiltzen ez den hizkuntza desagertzera kondenatua da. Transmisioa eta ezagutza ezinbestekoak dira, baina erabilera da hizkuntzaren helburu eta bizi-indar. Ipar Euskal Herriko euskararen aldeko ekosistema publiko eta sozialean, hizkuntzaren erabileran zentratzen diren hainbat egiturek euskararen erabilera bultzatzen dute.

## **1.5 Euskarari buruzko interesa eta aldeotasuna gora**

1996az geroztik, herritarrek euskararen erabilera sustapenari buruz duten begiradak bilakaera izan du, 6 puntu galdu ditu, %42,3tik %36,3ra igaro da 2021ean. Biztanleen %60,5ek diote euskararekiko interes handia edo nahikoa dutela. Irakaskuntzari dagokionez, %54k murgiltze eredua edo eredu elebiduna aukeratzen du. Etorkizunari begira, herritarren %93,7k uste dute euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela.

Datu horiek baino haratago, herritarren gehiengoak sentsibiltate bat baduela eta euskararen aldekoa dela baieztatzen ahal da, funtsezko heldulekua dena etorkizunerako. Baina kontuan hartzekoa da egoera politikoaren eraginez hau aldakorra dela.

## **2. KONTESTUAREN ELEMENTUAK**

### **2.1 Munduko tendentziak**

Mundu mailan tendentzia pisu batzuek eragin zuzena izango dute euskara bezalako hizkuntza gutxia-gotuentzat eta gurea bezalako hizkuntza komunitatearentzat: eskuin muturreko ideologiaren hedatzea iritzi publiko zabal batengan, erregimen autoritarioen biderkatzea, adimen artifizialak sortzen duen iraultza sakona hizkuntzen kudeaketan, buxeta murrizketak zerbitzu publiko eta elkarteetan la-guntzetan... Biziberritze prozesuan den hizkuntza gisa, euskara edozein hizkuntza hegemoniko baino egoera zaurgarriagoan kokatzen du. Munduko hizkuntza ttikiagotuak etorkizunera proiektatzeko bisio, diskurtso eta praktikak asmatu beharko dira.

### **2.2 Frantses estatuaren egoera**

#### 2.2.1 FRANTSES ESTATUAREN IZAERA

Estatu frantsesa Estatu zentralizatzailea da, historikoki lurralde eta kultura bati lotuak diren hizkuntzak arrisku gisa ikusten dituen, eta ez aberastasun gisa.

Munduko tendentzietan egin diren azalpenetik, Frantzia ez da libratzen. Gainera Frantzia, ezegonkortasun instituzional eta politiko batean aurkitzen da azken urteetan eta egoera horrek ez ditu errexten lurralde hizkuntza horien aldeko aldaketa positiboak. Alderantziz, gaur egungo ideologia hegemonikoak hizkuntza horien etorkizunari buruz izan daitezkeen ikusmolde eta jarrerak kezkatu behar gaituzte.

#### 2.2.2 FRANTSES ESTATUAREN JARRERA EUSKARAREKIKO

Frantziako Estatuak erantzukizun historikoa du Ipar Euskal Herrian euskarak izan duen gainbeheran. Gaur egun formak gehiago zaintzen baditu ere, ez du etenik mendeetan zehar gure hizkuntza suntitzeko eraman duen politikak. Egindako kaltea konpontzeko erreparazio politika bat ezinbestekoa da. Azken urteetan, diskurtsoa aldatu dute: Estatuak dio bere «ondarea» salbatzeko egin ahal guztiak egiten dituela; alta, zainketa palatiboaren politika da indarrean dagoena. Historian zehar, eta gaur egun ere, baliabide gehiago ezarri dituzte gure hizkuntzaren kontra, hura biziberritzeko baino. Frantziako Estatuak frantsesa inposatu nahi du herritarren hizkuntza bakar gisara; eta, anartean, apaingarri gisa atxiki nahi du euskara, denborarekin osoki desagertu dadin.

Estatuko aparatuek jarrera oldarkorra atxikitzen dute euskararen kontra. Prefeturak behin baino gehiagotan eman ditu auzitan Ipar Euskal Herriko herriko etxeen erabakiak. Auzitegietan ere euskaraz mintzatzeko debekua eman diete auzipetuei. Azterketak euskaraz egiteko eskubidea da eten-gabeko sokatira hori ongien islatzen duena; aitzinatze ororen ondotik gibelatze berri bat izan da azken urteetan.

Jarrera hori agerian gelditu zen 2021ean bozkatu zen Molac Legearen inguruko eztabaidetan. Batetik, erakutsi zuen jendartean bezala, iritziak aldatzen ari dira politikarien artean; duela urte batzuk pent-saezina zitekeen halako lege baten bozkatzeari. Bestetik, erakutsi zuen lurralde hizkuntzak garatzeko erresistentziek gaur egun ere hor dirautela, eta sumindura sortzen duela eztabaidak, lurraldeetako hizkuntzak Frantzia zatitzeko tresnak izan daitezkeelakoan. Azkeneko Frantziako Gobernuak gidatu zuen diputatuen helegitea, eta Frantziako Konstituzio Kontseiluak bertan behera utzi zituen legearen funtsezko artikulak.

### **2.3 Ipar Euskal Herriaren egoera**

Azken 30 urteotan, Ipar Euskal Herriko egoerak bilakaera handia izan du. Urrats garrantzitsuak eman dira, gure lurraldea hobeki antolatu eta gure gain hartzeko aukera izan baitugu. Denbora berean, euskararen bilakaera eta garapenerako ezinbestekoak diren lehen tresnak eskuratu ditugu.

1999an, Udalbiltza sortu zen. Bere helburua, besteak beste, euskararen garapenerako ekintzak gauzatzea zen. Hasieran, emankorra izan zen. Gerora, sortzaileen arteko desadostasunen ondorioz, indarra galdu zuen eta gaur egun sorreran zuena baino indar txikiagoa du.

Euskararen Erakunde Publikoa 2005ean sortu zen, eta Euskal Hirigune Elkargoa 2017an, erakunde bakoitzak bere hizkuntza politika eta plangintza definitu dituelarik. Horrez gain, lege indarririk ukan gabe ere, Elkargoak, bozka baten bidez, euskara lurralde honetako hizkuntza gisa ofizialki aitortu zuen 2018ko ekainean.

Bi lorpen horiek garaian positiboak izan ziren eta egiazko aitzinamenduak ahalbidetu dituzte. EEPren, kasuan honen sorrerak hizkuntza politikaren egituraketa bat ekarri baldin badu ere emaitzak ez dira esperotakoak izan. Gaur egun ikusten dugu hizkuntza politika eta politika hau plantan emateko behar diren baliabide eskakizunak ez direla betetzen EEP edo Euskal Elkargoan. Baina, Instituzioek darabilten ezintasun ekonomikoaren aitzakia ez da onargarria. EEPren prospektibak aspaldi erraten genuena frogatu du : ez da fatalitaterik, euskara garatzea posible da, borondatea izanez gero. Instituzioen borondate ezak du gure hizkuntza galbidean jarriko.

Aldi berean, eta azken urteetan ainitz nabarmendu da, urtero, Ipar Euskal Herriak biztanle berri anitz hartzen ditu, nagusiki frantses hiztunak. Fenomeno honek, eta bere azelerazioak, ondorioak ditu gure hizkuntzarengan. Euskararen erabileran eta euskaldun kopuruaren proportzioak beherantz segitzen du, besteak beste, etorri berri kopuru handi hauengatik. Etorrera hauek dakartzaten ondorioak hizkuntzaren ikuspegitik ere aztertu behar dira.

Argi da fase berri bat ireki behar dela Ipar Euskal Herrian, instituzioek eta tresnek eskumen eta baliabide ekonomiko berriak eskuratu behar dituzte. Gaur egungo erronken dimentsioa kontutan harturik, egitura hauek, lehenik eta behin, hizkuntza politika ausarta baterako ezinbestekoak dira. Aro berri honen helburuak zehazteko mementoan, euskara, bilakaera horren alde diren sektore guzietan kezken erdian egotea bermatu eta posible egin behar dugu.

Iraganean, beste sektoreekin batera, Euskal Konfederazioa Batera mugimenduaren bultzatzailea izan da, eta horri esker indarrak metatu dira eta lehen mailako errekonozimendu borroka irabazi da.

### **3. EUSKAL KONFEDERAZIOA**

#### **3.1 Euskal Konfederazioaren sorrera**

Euskalgintzako lehen elkarteak duela 50 urte baino gehiago sortu baziren ere (Ikas 1959an, Seaska 1969an...), Pizkundea elkartearen sorrera (1984an) urrats garrantzitsua izan zen euskararen eta euskal kulturaren aldeko eragileak biltzeko. 1994an Pizkundea, AEK, Seaska eta EHE biltzen zituen Deiadar Kolektiboa gogoeta taldea sortu zen eta urrian antolatu Euskararen Ihardunaldietan Euskararen Agiria - Berehalako 40 neurri eta gomendio agiria argitaratu zuen.

Dokumentua oinarritzat hartuz, Euskal Konfederazioa 1995ean sortu zen, ondoko helburuekin:

- euskararen normalizazioa garatzea eta laguntzea;
- ipar Euskal Herriko euskalgintzaren ordezkaria izatea;
- jendartean euskararekiko atxikimendua eta inplikazioa lortzeko ekimenak antolatzea;
- euskalgintzaren gogoeta gunea izatea;
- botere publikoekiko solaskidea izatea; euskararen normalizazioaren aldeko proiektuak bultzatzea.

#### **3.2 Euskal konfederazioaren 30 urteetako jarduerak**

Helburu hauek lortzeari begira, bi lan ardatz nagusi izan ditu Euskal Konfederazioak: ildo aldarrikatzailea alde batetik, eta egunerokoan eta hainbat arlotan euskara garatzeko kanpainen eta lan ildoen garatzea bestetik.

##### 3.2.1 ILDO ALDARRIKATZAILEA

Konfederazioak, hainbat mobilizazio antolatu ditu (bakarrik edo Batera plataforma bezalako eragileekin, Deiadar manifestaldiak lan ardatz horren ikur nagusia izan direlarik), instituzioak eta botere publikoak akuilatzeko, euskararen aldeko hizkuntza politikarako tresnak sor ditzaten, euskararen aldeko lege koadroa hobetzeko, hiztunen hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko, Ipar Euskal Herria instituzionalki eraikitzeke, etab...

Indar-harreman horrek emaitzak eman ditu, eta presio sozial horri erantzuteko botere publikoak erantzunak ematera behartuak izan dira.

Lorpen batzuk aipatzearren: 2000ko Euskal Herriko Hitzarmen Berezian hizkuntza politika atal berezi gisa agertzea eta euskaren aldeko dirulaguntza iraunkorrak eta elkarteen ezagupena; Hizkuntza Kontseiluaren sorrera (2001ean) eta ondotik Euskararen Erakunde Publikoarena (2005an); Euskal Elkar-goaren sorrera 2017an...

Karrikako mobilizazioetatik gain, Euskal Konfederazioa gogoeta eramaile, ekarpen egile eta dokumentu ekoizle ere bada, beti ere euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa hobetzeko helburuarekin, eta hautetsi eta erabakitzaile politikoak interpelatu eta sentsibilizatzeko helburuarekin.

Egindakoen artean: *Hizkuntza Politika Publikoa Iparraldean* dokumentuaren plazaratzea (2005ean), EE-Pren hizkuntza politika proiektua definitzen laguntzeko gogoetan parte hartzea (2005ean), Lurralde Kontratuko euskara atala lantzeko atelierraren bultzatzea (2015ean), Euskal Elkargoari euskararen bide-orriaren igortzea (2017an), eskola publikoan murgiltzea irekitzeko baldintzak gogortuko zituen protokolo berriaren kontrako lana (2020an), inkesta soziolinguistikoen irakurketa eta ondorioen ateratzea (azkena 2023an)...

### 3.2.2 KANPAINAK ETA ILDO GARAPENAK

Konfederazioak inizatiba propioz eraman lan ildoak eta kanpainak aipa daitezke (txekek euskaraz kanpaina, Baionako ospitalean euskara garatzeko elkarlana, 2002tik 2006ra eraman herriko etxeen lan ildoak -zeinaren bidez 42 herriko etxe Euskal Konfederazioarekin hitzarmenez engaiatu ziren euskara garatzen).

Beste eragileekin eramandako lanak ere aipatzekoak dira (Bai Euskarari akordioa Ipar Euskal Herrian Kontseiluarekin batera 2000an, Euskaraldiaren lehen edizioaren antolatzea Ipar Euskal Herrian Topagunearekin batera 2018an, Protokoloaren aurkezpena herrietan Kontseiluarekin batera (2020an), herrietan euskararen aldeko Tokiko xartaren bultzatzea Itsasuko hautetsiekin elkarlanean (2021ean), etab...). Euskal Herriatik kanpoko eragileekin ere aritu da elkarlanean Euskal Konfederazioa, Hexagono mailan, lurralde hizkuntzen aldeko beste mugimenduekin, hainbat egituratan (EBLUL, Collectif du 31 mars, Pour Que Vivent Nos Langues...), ekimenak Parisen bururatuz (manifestaldiak, Unescori gutunak, lege proposamenen idazketak, parlamentariekin bilkurak...) eta ber egunetan eta aldarrikapen amankomunen inguruan lurraldeetan mobilizazioak antolatuz.

### **3.3. Euskal konfederazioaren antolaketa eta jarduera gaur egun**

Gaur egun ere Euskal Konfederazioak euskaingintzako elkarten bilgune funtzioa izaten segitzen du eta arlo desberdinetako eragile nagusiak biltzen ditu: AEK, Bertsularien Lagunak, Biga Bai, Euskal Haziak, Euskal Hedabideak, Euskal Herrian Euskaraz, Konkolotx, Mintzalasai, Plazara, Seaska, Taupa eta Uda Leku. Hala ere, zenbait eragile nagusi ez dira kide, hala nola Elkar, Ikas, Bai Euskarari eta Ikas-Bi.

Elkarteetaz gain, norbanakoak ere onartzen ditu Euskal Konfederazioak, eta hori elkarteak sortu zenetik. Jarduerari dagokionez, eta 2024ko biltzar nagusiak onartu norabide txostena begiratzen badugu, erran daiteke sortu zenetik dituen misioak gaur egun ere betetzen segitzen duela, izan gogoeta/ekarpen egile gisa (Garapen Kontseiluak abiatu «Iparraldea 2040» gogoetan parte hartzea euskara atalean), izan proiektu eramaile gisa (Tokiko xarta herrietan), izan mobilizazio antolatzaile gisa (Pour Que Vivent Nos Langues kolektiboarekin frantses Konstituzioa aldatzeko elkarretaratzeak, Kontseiluarekin euskararen kontrako oldarralditik euskararen suspertzera pasatzeko kanpaina), izan aldarrikatzaile gisa (parte hartzea Bateran)...

Ibilmoldeari dagokionez, biltzar nagusia urtean behin egiten da (jarduera bilana/kontuak eta norabide txostena/aurrekontua bozkatzeko), eta abantzu kide guziek osatu zuzendaritza hilabeteen behin bederen biltzen da, biltzar nagusian onartutakoaren gauzatzea zaintzeko eta aktualitatezko gaiak tratatzeko. Haatik, Konfederazioaren egin behar edo helburuen betetzea mugatua da duen egitura eta baliabideekin.

#### **4. ONDORIO OROKORRAK**

Datu guztiek erakusten dutenaren arabera euskara egoera minorizatu eta zaugarrian aurkitzen da. Azken 50 urteetan herriak eramandako borroka eta kanpainei esker sortu eta garatu dira euskalgintza-ko egiturak eta herriaren borondateari esker bizi izan du euskarak indarberritze aro bat.

Ipar Euskal Herrian lorpen hauei esker, euskal hiztunak sortu eta euskaraz bizitzeko tresnak garatu dira eta ondorioz, euskara ikusgarriagoa bilakatzen da eta jendarteko arlo desberdinetan presentzia bat segurtatu eta aldeketasun bat garatzen da, hauskorra izan arren.

Bertako instituzioen sorrerak ere euskararen alde lan batzuk abiatzen ditu baina guzti hau ez da aski euskararen gainbehera erabat gelditu eta susperraldi bat emateko. Sortutako instituzioek ere tresna eraginkor gisara beraien mugak erakutsi dituzte eta arlo honetan ere Ipar Euskal Herriaren instituzioen bilakaeraren inguruko gogoeta fase bat abiatu da eta Konfederazioak ere bertan eraginen du.

Testuinguru honen aitzinean, euskal jendarteak eta euskalgintzak fase berri batean murgildu behar duela agerian da, jauzi berri bat eman euskara lehentasunetara ekarriz arlo guzietan, euskal hiztun berriak sortu eta euskaraz eroso bizitzeko eremuak garatuz.

## 2.- EUSKAL KONFEDERAZIOAREN ERRONKAK

### 1. XEDEA – ERRONKA OROKORRA

#### ZERGATIK ETA ZERTARAKO DA KONFEDERAZIOA? ZER DA?

Euskal Konfederazioa, herri mugimenduan txertatzen den egitura da eta ipar Euskal Herrian euskalgintzan ari diren erakundeen bilgunea. Euskal Herri osoko euskalgintzarekin lanean ari da, baita Frantziako Estatuaren meneko lurraldeetan hizkuntza gutxituen alde ari diren elkarte mugimenduekin.

Euskararen normalizazioa du xede, hots, euskaldun oro bere hizkuntzan eroso bizi ahal izatea eta bere hizkuntza eskubideak errespetatuak izatea. Horretarako, euskararen garapena eta biziberritzea ditu ardatz. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da:

- hiztun kopuruaren emendatzea, bai kopuru absolutuan, baita biztanleriaren ehunekoetan ere.
- euskaltzaleen komunitate linguistiko emantzipatua garatzeko, ahalduntzea eta antolatzea.
- hizkuntza politika publikoetan eragitea.
- euskararentzat lege koadro egokia lortzea.

### 2. IKUSPEGIA

#### NORA HELDU NAHI GENUKE? NOLA AURREIKUSTEN DUGU KONFEDERAZIOA ETORKIZUNEAN?

Euskal Konfederazioa euskalgintzan ari diren erakundeen erreferente amankomuna da, elkarrekin gogoeta eta estrategia amankomunak eraman ahal izateko eta elkarren babesa izateko. Euskalgintzako bozgorailua da Euskal Konfederazioa.

Herri mugimenduan oinarriturik, herria aktibatu, ahaldundu eta mobilizazioetarako egitura ere bada. Euskararen biziberritzearen alde ahalik eta jende gehien biltzea eta antolatzea du helburu. Horretarako aliantzak sortzen ditu, bai Euskal Herrian eta baita nazioartean ere. Euskal Konfederazioak lanerako orduan bere ahots propioa du.

Bestalde, herritarrek ere pisua izateko erakunde publiko eta pribatuetan euskara gehiago erabil dezaten, Behatokiaren euskararen telefonoa bezalako tresnak ezagutaraziko eta erabiltzera bultzatuko du Euskal Konfederazioak.

Kolektibo hau hizkuntza politika anbiziotsu bat adostu, garatu, eta gauzatu dadin tokiko erakunde publikoekin harremanetan da. Ipar Euskal Herriaren erakundetzearen alde lan egiten du, politika publikoetan euskara gai transbertsala izanen dela segurtatzeko.

Eragile sozial, politiko eta sindikatuarekin elkarlanean ari da hizkuntza politika gauzatzeko eta bultzatzeko. Era berean, eragile horiekin banakako lana egiten du, bakoitzaren errealitatetik abiatuta,

haien egunerokoan euskarari leku gehiago eman diezaioten. Orogen buru, helburu da Ipar Euskal Herriko erakunde politiko, sozial eta sindikalek egunerokoan euskarari lehentasunezko lekua eman diezaioten.

Estatuarekiko, instituzio eta administrazioekiko indar harremanean eragiteko tresna ere bada.

### **3. LAN ILDOAK**

#### **3.1 Ipar Euskal Herriaren berreuskalduntzea**

Ipar Euskal Herriko gizartea berreuskalduntzea da Euskal Konfederazioaren helburua. Bide horretan, euskararen ezagutza jauzi bat ematea ezinbestekoa da: EEPren prospekzioaren arabera, 2050ean hiztunen %30a lortzeko, 40.000 euskal hiztun gehiago beharko lirateke. Hots, egungo hiztunen kasik pareko kopurua. Horretarako euskal hiztunak masiboki sortzea da erronka.

##### 3.1.1 HEZKUNTZA ARAUTUA

#### **Eskaintzaren unibertsalizazioa**

Gaur gaurkoz, Ipar Euskal Herriko eskolen %60 inguruk eskaintzen du euskarazko irakaskuntza mota bat. Helburua izan behar da ikastetxe guzietara zabaltzea euskalduntzen duen eskaintza.

#### **Sail elebidunaren egituratzea**

Klase elebidunen irekitzea ez da esparru edo irizpide berezien menpe, ikastetxe bakoitzak bere eskaintza nahi bezala antolatzen du. Lehen mailan, hizkuntzaren irakaskuntza Ipar Euskal Herriko kontratupean dauden ikastetxe publiko edo pribatu guztietara hedatzea da helburua, Molac legeak finkatu norabideen arabera. Bigarren mailari dagokionez, bi hizkuntzen arteko ordu parekotasuna lortzea izan behar da helburua.

Funtsezkoa da ama eskolatik lizeorako sail elebiduna egituratzea, nazioarteko sailetan egiten den bezala. Horri esker, alde batetik, sail elebiduna proposatzen duten eta murgiltze sistema proposatzen dutenen elkarren arteko lehia saihestuko litzateke, eta bestaldetik baliabideak beharren arabera zehaztuko lirateke, bereziki irakasle postu kopuruari dagokionez.

#### **Murgiltze ereduaren orokortzea**

Gaur egun euskalduntzen ez diren ikasleak gehiago dira ikasle euskaldunak baino. Euskal hiztunak masiboki sortzeko ezinbestekoa da murgiltze eredu orokortzea, sare publiko eta pribatuan ere ama eskolatik goiti euskara hutsean egiteko aukera izan dadin. Horretarako epe luzeko plan bat behar da.

#### **Ikastolak**

Ikastolak dira gaur egun ikasle guziendako euskarazko irakaskuntza bermatzen duten bakarrak. Ikasleak dituzten oztopoak gainditzeko koadro berri bat finkatu behar da, irakasle postuak, irakasle ez diren postuak, ibilmoldea eta eraikuntzen finantzamendua bermatzeko.



### **Azterketak euskaraz**

Ikasleek azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea aitortu behar da, irakaskuntza sail guzietako ikasleentzat eta azterketa guzietan: brebeta, baxoa, baxo profesionala, teknologikoa, goi lanbide profesionala, unibertsitatea...

### **Ikas materiala**

Euskarazko irakaskuntzak zentzu osoa izan dezan, ikasleek euskaraz ikasteko baldintzak bermatu behar dira. Jadantik egiten denetik abiatuta, programen arabera ikas materiala euskaraz sortzeko baliabideak behar dira.

#### 3.1.2 HAURTZAINDEGIAK

Hiru zaintza mota ezberdin nagusi dira gaur egun lurraldean, haurtzaindegia, haurtzain etxeak (MAM) eta etxe haurtzainak. Banakako zaintzak (etxe haurtzain eta haurtzain etxe) du eskaintza proposamen zabalena. Zaintza mota ezberdinak kontuan hartuz murgiltze ereduko harrera proposamena %5ekoa baizik ez da lurrean.

Bestalde, lurraldeko haurtzainen adina aitzina doa ere, herenak 55 urtez goiti ditu.

Ondoko urteetako erronkak hauek izanen dira:

- Euskara hutsezko harrera tokien garatzea, batez ere eskaintza guti edo batere ez den guneetan;
- Haurtzainek euskararen transmisioan egiten duten lana agerian ematea eta haurtzainen lana bera balorean ematea;
- Haurtzain euskaldunak formatzea, euskarazko ofizio formakuntza eskainiz;
- Haurtzainak euskarara formatzea, formakuntza trinko eta jarraikiak plantan jarritz.

#### 3.1.3 HELDUEN EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEA

Gaur egun argi da euskararen etorkizuna segurtatzeko haurrak euskaraz aritzea ez dela aski. Helduak euskalduntzea ere ezinbestekoa da. Horretarako, Ipar Euskal Herrian bizi direnak, eta berriki iristen direnak euskalduntzeko estrategia bat behar da.

### **Ikasketa eskaintza lurralde osora zabaldu eta egonkortzea**

AEKK biztanleengandik hurbil diren ikas-taldeak sortzeko xedea du, bidaiatzea ez dadin izan euskara ikasteko oztopo bat. Hala ere eskaintza ez da ipar Euskal Herriko eskualde guztietara orokortua eta Amikuze, Oztibarre eskualdean, Xarnegun eta Xiberoan eskaintza ez da guztiz egonkortua. Jendarteari euskara ikasteko ahalik eta aukera zabalena emateko eskaintza lurralde osora zabaldu eta egonkortzea ezinbestekoa da.

### **Euskarazko irakaskuntzaren doakotasuna bermatzea**

Herritar orori euskara, bertako hizkuntza, ezagutzeko eskubidea bermatu behar zaio eta horretarako, heldu guzietan euskara ikasi eta alfabetatzeko bidea errextea ezinbestekoa da. Horregatik euskalduntze prozesuak osoki doakoa izan behar du eta botere publikoek eskubide hori bermatzeko beka sistema bat plantan eman behar dute heldu guzietan eskuragarri izanen zaiena eta ipar EH osora hedatua izanen dena.

### **Finantzamendu koadro iraunkor bat adostea**

Gaur egun HEA arloan ez da finantzamendu koadro adosturik eta egoera politiko eta ekonomikoak anitz baldintzatzen du honen finantzamendua. Euskal hiztunak masiboki sortzeko, HEA arloan ari diren egituren aldian aldiko dirulaguntza-sistema gainditzeko finantziazio-eredu bat beharrezkoa da. Honek iraunkorra eta egonkorra izan behar du.

### **Euskara ikasteko langileen formakuntza eskubidea bermatzea**

Euskararen presentziak lan mundura ere jauzi bat eman behar du. Ezinbestekoa da lehen lerroan eta publikoarekin lanean ari diren langileak euskalduntzea. Horretarako formakuntzaren diruztatzea, langilearen postuan ordezkari jartzea eta soldataren mantentzea beharrezkoak dira. Horrez gain langileei egokitutako formakuntza eskaintza berezituak garatzea ezinbestekoa (trinkoak, lan denboran egiten diren formakuntza egokituak eta abar).

### **Irakasle lanbidearen formakuntza ibilbide bat sortu**

HEAren arloan ari diren edo ariko diren irakasleak formatzeko prestakuntza beharrezkoa da. Bereziki heldu euskal hiztunak masiboki sortu behar baldin badira irakasle aditu beharra handia izango baita. Formakuntza prozesu egoki bat sortu behar da.

#### 3.1.4. EUSKARAREN ERABILERA GARATZEA

Euskal hiztunak emendatzeaz gain, euskaraz bizitzeko aukerak eta erabilera zabaltzeko eremuak emendatzea ezinbestekoa da. Haur eta helduei lana, aisia, kultura, kirola eta abar, hots, egunerokoa euskaraz eroso praktikatzea eta bizitzeko aukerak eman behar zaizkie. Euskarari bere lekua eman behar zaio.

### **Euskararen arnaguneak sustatu eta saretzea**

Hiztun dentsitatea altua den eremuetan erosoagoa da hizkuntza erabiltzea. Euskararen arnaguneak sustatu eta saretu behar dira tokian toki, eta euskara erabiltzea naturala den eremuak garatu. Mintzapraktika taldeak egituratzea funtsezkoa da.

### **Zerbitzu publikoen euskalduntzea**

Herritarren egunerokoan ezinbestekoak diren zerbitzu publiko oro euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu behar da. Tokian tokiko erakundeei helburu horretara iristeko urratsak emateko agindu behar zaie.

### **Euskarazko Hedabideak**

Euskararen egoera kezkarriaren kontestuan, euskarazko hedabideek biziraupena ea garapena ezinbestekoa da. Hizkuntza bat berreskuratzean hedabideek duten funtzioa oso garrantzitsua da. Hizkuntzarn barne bizitza eta kohesioa erakusteko tresna ezinbestekoak dira.

### **Euskarazko aisialdia**

Herriko etxeei eskaera egin behar zaie kultur, kirol, eta aisialdi politiketan euskarazko eskaintza berma dezaten. Funtsezkoa da ere haur eta nerabeen euskarazko aisialdia bermatzen duen Udaleku elkarteari egunerokoan funtzionatzeko eta garatzeko behar dituen baliabideak ematea.

### **Paisaia linguistikoa**

Eremu publikoan euskararen presentzia bermatu behar da. Tokian tokiko erakundeei eta merkataritza guneei eskaera egin behar zaie haien eguneroko komunikazioa eta seinaleetika euskalduntzeko.

### **Herritarrak motibatzea, ahalduntzea eta aktibazioa**

Euskara ardatz izango duten herritar euskaltzaleak motibatzea eta ahalduntzea berebiziko garrantzia du. Horien aktibazioak eta saretzeak euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak antolatu, bultzatu eta eskaintza horietan parte hartzea sustatuko da. Gaur egungo tresnak garatuko dira.

## **3.2. Euskararen lege koadroa**

Gaur egungo legalitateak ez du euskararen biziraupena bermatzen. Euskarak koadro juridiko bat beharrezkoa du; estatus legal bat behar du Ipar Euskal Herriko eremuan.

### **Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua**

Frantziako Konstituzioaren 2. artikulua frantsesa inposatzen du Frantziaren Estatuaren meneko lurralde orotan. Hizkuntza eskubideak bermatzeko oztopo nagusi bat da. Euskarak estatus legal bat lor dezan, ezinbestekoa da artikulua hori aldatu edo ezabatzea.

### **Ipar Euskal Herrian lege koadroa**

Euskarak frantsesaren heineko estatus legal bat behar du Ipar Euskal Herriko eremuan, hizkuntza politika eraginkor baten bidez euskaldunek frantses hiztunen hein bereko hizkuntza eskubideak izateko eremu publikoan. Lege koadro hori eskuratzeko bideak landu behar dira.

### **Koofizialtasunaren aldeko gehiengo bat**

Ipar Euskal Herriko gehiengo politiko, sozial, sindikal bat osatu behar da euskararen koofizialtasunaren aldeko akordio zabal batean. Pisu handia duten heinean mundu kulturala eta ekonomikoa ere kontutan hartu beharko da alde guztien sustengua segurtatzeko. Mobilizazio zabal bat antolatu behar da, Frantziako Estatuarekin indar harreman indartsu bat ezartzeko.

## **3.3. Lan instituzionala**

### 3.3.1. INSTITUZIO ETA LURRALDE KOLEKTIBITATEETAN ERAGIN

Ipar Euskal Herriko instituzio eta lurralde kolektibitateetan eragin behar da, euskararen aldeko hizkuntza politika transbertsala izan dadin. Era berean, erakunde bakoitzak erabakitako hizkuntza politikaren segipena egitea ere beharrezkoa da, finkatutako helburuetara iristeko behar diren urratsak egiten di-tuztela segurtatzeko.

### **Herriak**

2020tik herriko etxeekin lan ildo bat abiatua da Europako hizkuntza gutxituen tokiko xartaren inguruan. Hori eguneratu eta jarraipen protokolo bat martxan jarri behar da Euskal Elkargoarekin elkar-lanean, herriko etxeak hizkuntza planak osatu eta betetzera bultzatzeko.

### **Euskal Elkargoa**

2018an onartu zuen Hizkuntza politika proiektua Euskal Hirigune Elkargoak, eta euskara «ofizialki» aitortu zuen bere lurraldean. Euskararen aldeko hizkuntza politika garatzeko orduan gidaritza hartzea erabaki zuen. Orduan finkatutako helburuak betetzen direla segurtatzeko jarraipen prozedura bat adostu behar da. Euskal Elkargoa akuilatu behar da euskararentzat koadro legal bat eskuratzeko, eta hizkuntza politikari norabide argi eta anbiziotsu bat emateko bidean gidaritza har dezan.

### **EEP**

EEPri bultzada berri bat eman behar zaio. 2050ean hiztun kopurua %30era iristeko prospekzio lana egin ondotik, helburu hori gauzatzeko baliabideak ematera behartu behar dira EEP osatzen duten lau instituzioak. Hori lortzeko behar besteko indar harremana finkatzera iritsi behar da euskalgintza.

### **Eusko Jaurlaritza**

Eusko Jaurlaritzak Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileak diruz lagundu ditu historikoki. Azken urteetan, ekarpen hori izoztua du eta ez du emendatu. Ematen duen laguntza berrikustera bultzatu behar da.

### 3.3.2. HIZKUNTZA POLITIKA OSATZEKO KONTZERTAZIO GUNE BAT SORTU

EEPko aholku batzordea uztea erabaki zuten Euskal Konfederazioko eragileek 2015eko udazkenean. Ordutik ez da espazio hori eguneratzeko urratsik egin. Ipar Euskal Herrian euskara garatzeko beharrezkoa den hizkuntza politika adostu eta obratzearen jarraipena egiteko kontzertazio gune berri bat sortu behar da, Konfederazioaren ordezkaritza bat eta instituzioen artean.

### 3.3.3. IPAR EUSKAL HERRIAREN ERAKUNDETZEA

Euskal Hirigune Elkargoak ez du botere nahikoa euskararen aldeko hizkuntza politikak dituen erronkei erantzuteko. Erakundetzean urrats berri bat egin behar da, eskumen gehiagoko instituzio berri bat eskuratzeko. Funtsezkoa izanen da erakunde horrek euskarari koadro legal bat segurtatzea. Helburu horretan, Konfederazioak BATERA plataformaren dinamikan parte hartzen du.

## **3.4. Dinamika soziala**

### 3.4.1. ERAGILEEKIN ELKARLANA

Euskal Konfederazioa Ipar Euskal Herriko eragile sozial, politiko, sindikal eta kulturekin elkarlanean ari da hizkuntz politika gauzatzeko eta bultzatzeko.

### **Akordio politikoa**

Euskal Konfederazioak akordio politiko bat landuko du Ipar Euskal Herriko eragile nagusiekin, euskararentzat koadro legal bat eskatu eta euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa babestu dezaten.

### **Hautetsiekin elkarriketak**

Euskal Konfederazioak elkarriketa dinamika bat landuko du Ipar Euskal Herriko kolore guzietako hautetsiekin, momentuan momentuko erronken arabera, bakoitzak bere instituzioan euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren aldeko urratsak ematea defenda dezan.

### **Bakoitzaren barne dinamikan eragitea**

Euskal Konfederazioak praktika egokien xarta bat landuko du, arlo guzietako eragileen eskura emateko. Helburua da haien egunerokoan euskarari gero eta leku gehiago ematera bultzatzea, ororen buru euskarari lehentasunezko leku bat ematera iristeko.

#### 3.4.2. MOBILIZAZIOA

Euskal Konfederazioak mobilizazio dinamika bat landuko du: euskararen koofizialtasunaren aldeko mobilizazio iraunkor bat, garaian Deiar mobilizazioak egiten ziren gisara, eta momentuan momentuko egoerari erantzuteko protestak.

#### 3.4.3 SARETZA ETA POUR QUE VIVENT NOS LANGUES

Euskal Konfederazioak aliantzak sortuko ditu, bai Euskal Herrian eta baita nazioartean ere, hizkuntza gutxituen alde lanean ari diren beste eragileekin. Frantziako Estatuaren meneko lurraldeetako eragileak biltzeak dituen PQVNL kolektiboan parte hartzen du.

#### 3.4.4. KONTSEILUA

Konfederazioa Euskalgintzaren Kontseiluko kide da, eta harreman iraunkorra du harekin. Hizkuntza politika publikoaren aldeko lan ildoak kontrastatuko ditu harekin, eta Ipar Euskal Herrirako egokitzapenak landuko ditu.